

«Nire nortasuna erabat bete ahal izateko euskara falta zitzaidala sentitzen nuen»

Zure izena Joseba Attard da, ezta? «Galdera sakona da hori –barrez–. Nire pasaportean jartzen duenez Joseph, baina hemen denek Joseba deitzen didate eta Euskal Herrian nagoenez, erabaki nuen errazagoa zela Joseba izatea eta kito».

1979. urtean jaio zen Ingalaterran, Cotswolds eremuan dagoen Cheltenhamen. Ama Elorekiokoa da eta aita, «erdi Ingalaterrakoa eta erdi Maltakoa». Hiru anai-arrebatan bigarrena da eta bera jaio zenean aita artzaina zen. «Mila bat ardi zaintzen zituen, baina ez ziren bereak, etxalde erraldoi batean lan egiten zuen. Ardi tartean jaio nintzela esan daiteke eta oso ohituta nago inguru horretara».

Berak lau urte zituela aitak lanbidea aldatu zuen, goi mailako nekazari eskoletako irakasle hasi zen eta aitaren ofizioa tarteko, etxe aldaketa asko izan zituen haurtzaroan, hara eta hona ibili zen familia. «Ingalaterran nekazari eskolak goi mailako lanbide heziketaren parekoak ziren, etxalde izugarri handiak, ez zeukaten antzik hemengo baserriekin; pentsa 500 behi, 300 txerri, milaka ardi, lauhun hektareatik gora zerealeko larreak, traktore eta makineria ugari... Bertan ikasleei irakasten zieten nola garatu ogibide bat nekazaritzan. Bertan, campusean, berrehun ikasle inguru bizi ziren eta gure familia ere etxalde eskola horietan bizi zen».

Bera haurra zen garaian ba omen ziren Ingalaterran era horretako hogeit bat eskola. «Ez dauka antzik Euskal Herri-

JOSEBA ATTARD DISEINATZAILE GRAFIKO ETA ARDI MOZTAILEA

Hamabost urte dira jaiotzen ikusi zuen Ingalaterratik Euskal Herrira etorri zela. Euskara falta zitzaion euskal herritarra zela esateko eta horretara etorri zen, euskara janztera. Marka identitatean eta logotipoen diseinuan espezializatuta dago eta ardi moztaillea ere bada. Oraintxe beren «bizitzako proiektua» eraikitzen ari dira bera eta Joanna emaztea, Eako Bedaroa auzoan. Lauhun urteko baserri batean atontzen ari dira ametsa.

Amagoia Mujika Telleria



Aritz LOIOLA | FOKU

ko baserriekin. Hemen baserriak familiek kudeatzen zituzten nagusiki eta beren neurrian ekoizten eta saltzen zituzten produktuak, maila txikian, lokalean. Erresuma Batuan askoz ere intentsibagoa zen eredia, eta askoz handiagoa».

Desberdintasuna ez dago usategien tamainan bakarrik, baita lanbidearen beraren prestigioan ere. «Nire amari adibidez beti lotsa pixka bat ematen zion bere senarra artzaina zela esateak. Garai hartan, eta baita oraindik ere, es-

tereotipo oso markatuak daude artzainen eta nekazarien inguruan Euskal Herrian. Ingalaterran ikuskera askoz modernoagoa da, ondo ikusia dago eta negozioa da. Ingalaterrako etxaldeen jabeak gehiago dira negoziatzaileak baserritarrak baino. Jardun horrek dirua ematen badu ondo eta bestela albora uzten du eta kito. Euskal Herrian, ogibide latza eta gogorra den arren, asko lotzen da sustraiekin eta badu ikuskera erromantikoagoa. Eta horrela joan da txikitzen eta txikitzen.


Jaurlaritzak, adibidez, gero eta txikiago bihurtzen du hartzen dituen neurriekin. Nekazaritza sustatzeko neurriak direla esaten du, baina ez da horrela. Ingurura begiratu besterik ez dago, dena da eukalipto eta nekazariak borrokan aritu behar dute laguntzak jasotzeko».

Testuinguruari begiratuta, Attardek ederki ulertzen du baserrietan erreleboa ematea hain zaila izatea. «Euskal Herria ederra da, paregabea. Baina azala pixka bat hazkatuz gero bizirauteko sekulako lanak dituzten baserriak eta baserritarrak topatzen dituzu. Badaude proiektuak, badago lan handia egiten duen jendea, baina nekazari mundua galbi-dean dago».

DISEINUAREN MUNDUAN URRATSAK

Esan bezala, Joseba Attard ardi tartean jaio zen, arkume baten pare, eta inguru horretan hazi zen. «18 urte nituela Plymouth-era joan nintzen Geografia ikastera. Etxetik zortzi ordura joan nintzen, ahalik eta urrutien. Eta hori nahi nuen hain justu independentzia eta autonomia lortzeko. Ez nuen asteburuetan etxera bueltatu nahi amak arropa zikinak garbitzeko. Ikasketak bukatu eta bertan geratu nintzen».

Unibertsitate garaian lagunekin musika talde txiki bat zeukan eta gitarra jotzen zuen bertan. Baina ez zen taldean zuen egiteko bakarra. «Kontzertuetako kartelak egiten nituen eta webgune bat ere sortu nuen. Garai hartan oso gauza berria zen, duela 22 urte oso jende gutxi zeukan webgune bat. Ikasketak bukatu eta lan gabe nengoen, oso ondo zer egin ez nekiela. Egunkari batean lan eskaintza bat ikusi nuen, argitaletxe batean diseinatzaile bat behar zuten. Bizi-



Aritz LOIOLA | FOKU

kletan joan nintzen elkarriketara, berandu ailegatu nintzen, izerditan, poltsikotik atera nuen nik egindako kartel bat eta webgunearen lotura eman nien, horixe bakarrik. Baina haiek nigan zerbait ikusi zuten eta orduan hasi zen nire diseinu ibilbidea. Bertan lanean hasi nintzen eta izugarri ikasi zuen. Bost urte egon nintzen, oso gustura diseinatzen. Enpresan gero eta ardura gehiago eman zizkidaten eta azkeneko nik eramaten nuen estudioaren ardura».

«EUSKARA FALTA ZITZ AidAN»

Attardek beti izan du barruan galdera bat piztuta. «Opor garaian gu Elorriora etortzen ginen, aitona-amonengana. Londresen hiru anai-arrebak autobus batean sartu eta bakarrik etortzen ginen. Aitak paper bat sinatzen zuen, etxetik

ez genuela alde egin esaten zuena. 10-11 urte nituenerako bakarrik etortzen nintzen anai-arrebekin. Guretzat itzela zen, beti opor garaian etortzen ginen, udan, Gabonetan, Aste Santuan. Beti lotzen gunden Euskal Herria jaiarekin, aisialdiarekin, giro onarekin... Nik betidanik maite izan dut Euskal Herria. Ingalaterran toki askotan bizi izan ginen, beti hara eta hona ibili ginen, eta jendeak nongoa nintzen galdetzen zidanean, ez nekien ondo zer erantzun. Eta azkenean Euskal Herrikoa nintzela esaten hasi nintzen, hemengoak sentitzen nintzelako eta haiengan kuriositatea piztu nahi nuelako».

16-17 urte zituela sentitu zuen baieztapen hori egin ahal izateko, Euskal Herrikoa zela lasai ederrean esan ahal izateko, euskaraz ikasi behar zuela.

«Amak ez zigun euskaraz egiten eta Elorriora oporretan etortzen ginenean gaztelera moldatzen ginen, Ingalaterran eskolan gaztelera ikasten genuelako. Aititak eta amamak euren artean euskaraz egiten zuten etxean, baina gurekin gaztelera. Gainera, gure aitita ez zen batere ondo moldatzen gaztelera. Barruan ar hori neukan, nire nortasuna erabat bete ahal izateko euskara falta zitzaidala sentitzen nuen. Eta horregatik pentsatu nuen egunen batean aukera izanez gero, Euskal Herrira etorri, euskara ikasi eta bertan geratuko nintzela».

27 urte zituela etorri zen une hori. Joanna, orain emazte duena, eta biak etorri ziren Ingalaterratik Euskal Herrira. «Joanna ni baino ausartagoa da eta argi zeukan hona etorri nahi zuela. Gasteizen ingele-

seko irakasle bezala lanpostu bat eskaini zioten eta etorri egin ginen. Guk garbi gunden, hala ere, etorkizunean guraso izan nahi genuela eta gure haurra hazteko toki on bat nahi genuela. Eta Euskal Herria horretarako toki aproposa iruditu zitzaigun». Hamabost urte daramate Euskal Herrian bizitzen eta alaba bat daukate.

Kaixo, agur, eskerrik asko eta ondo segi. Ez omen zekien beste hitzik euskaraz duela hamabost urte hona iritsi zenean. Durangoko AEKn ikasi zuen. «Etorri aurretik bi lan elkarriketa nituen antolatuta bi diseinu enpresatan. Bata Bilbon eta, bestea, Durangon, lehen Di-da izena zuen enpresak eta, orain Sorland. Eurekin hasi nintzen lanean, haien helburuetako bat euskararen defentsa baitzen. Ni justu


horregatik etorri nintzen; eus-
kara ikasi nahi nuen, jaietan
jartzen diren pankartak uler-
tu, jendearen aldarrikapenak
ulertu...».

Euskal Herriari begira jarri-
ta, «argi eta garbi» ikusten eta
entzuten zuen oihuka dagoen
herri bat. «Bitxia da, askatasu-
na oso hitz ederra da. Askata-
suna eskatzen dugu, baina ere-
mu bati lotzeko, Euskal
Herriko mugek markatzen du-
ten eremu horri. Askatasuna
eskatzen dugu kaiola batean
egoteko, eta kaiola hori da
Euskal Herriko mapa. Ez dakit,
zer pentsatua ematen du...».

Hamabost urtean aldatu da
Euskal Herriari begira jarrita
ikusten eta entzuten duena.
«Niretzat lehen Euskal Herria
eremu geografiko bat zen.
Orain gehiago ikusten dut he-
rria, herritarrak, jendea. He-
rrialde bat herri barik ez da
ezer. Herritarrek egiten dute
herria, euskal *people*».

BIZITZAKO ABENTURA BERRIA

Di-da agentzian –orain Sor-
land izenekoa– hamaika ko-
munikazio kanpaina egin zi-
tuen bertako bazkide izan zen
hamar urteetan. «2006tik
2016ra egon nintzen bertan di-
seinatzaile eta bazkide bezala.
Une batean aldatzeko beharra
sentitu nuen. Emazteari esan
nion: ni hiltzen naizenean hi-
larrian zer jarriko dute? ‘he-
men dago Joseba, logotipo ba-
tzuk egin zituen eta tipo
jatorra zen’. Nire bizitzan zer-
bait gehiago egin nahi nuen,
mundua jaso nuena baino ho-
betoxeago utzi. Diseinuaren
munduan aurrera joateko au-
kera edo gaitasun gabe geratu
nintzen. Madril edo Londrese-
ra joan nintekeen, komunika-
zio enpresa handiago batera,
baina hori ere ez nuen nahi.
Bere proiektuetan erabat si-



Bedaroako baserria konpondu bitartean, baserri ondoan jarritako jurta batean bizi izan ziren Joseba Attard eta bere familia. Joseba ATTARD

nisten duen jendearekin lan
egitea gustatzen zait, ez diot
nire denbora kapitalismoari
eman nahi. Eta puntu horre-
tan emaztea eta biok hausnar-
tzen hasi ginen, zer-nolako bi-
zimodua nahi ote genuen.
Faltan sumatzen nuen hazi
nintzen giroa; etxaldea, ani-
maliak, natura, kanpoko bizi-
modua... mundu horretan bizi
nahi genuela erabaki genuen.
Dena utzi eta baserri bat topa-
tzea erabaki genuen, bertara
bizitzera joan eta hainbat
ekintza martxan jartzeko; Jo-
annak ingeleseko klaseak
eman, ni surflaria ere banaiz
eta ikastaroak antolatu, landa
eremuan bizi, ortua, anima-
liak, egonaldiak... erosketa ze-
rrenda baten antzekoa egin ge-
nuen, nahi genuen
guztiarekin. Azkenean Eako
Bedaroa auzoan baserri bat
erosi genuen».

Laurehun urteko baserri za-
har bat egoera nahiko tamal-
garrian, erdi erorita, teilatua
apurtuta, sasiz betetako zortzi
hektarea... Duela lau urte hasi
ziren Joseba eta Joanna beren
bizitzako abentura berrian.
«Lehen urteak oso gogorrak
izan ziren. Baserrian ez zegoen
ur berorik, ez zegoen komunik
eta jurta batean bizi ginen,

*«Une batean
aldatzeko beharra
sentitu nuen.
Emazteari esan
nion: ni hiltzen
naizenean hilarrian
zer jarriko dute?
‘hemen dago Joseba,
logotipo batzuk
egin zituen eta tipo
jatorra zen’. Bizitzari
180 graduko bira
eman eta gero, gure
ametsa eraikitzen
ari gara, benetan
egin nahi duguna
egiten laurehun
urteko baserri
batean»*



Mongoliatik ekarritako haima
modukoa. Baserri alboan jarri
genuen eta bertan bizi izan gi-
nen lehen urtean. Bitartean,
etxe ondoko untxitegia kon-
pondu genuen, txabolatxo bat.
Bigarren urtea untxitegian
eman genuen. Eta hirugarren
urtean pasatu ginen baserrira
bizitzera. Hiru txerri txoen
ipuina bezala, orain dagoene-
ko harrizko etxean gaude. Eta
oraindik otsoa ez da etorri».

OLABE PROJECT

Olabe Project izena du mar-
txan jartzen ari diren proiektu-
ak. «Bizitzari 180 graduko
bira eman eta gero, gure ame-
tsa eraikitzen ari gara, benetan
egin nahi duguna egiten. Gu
martxan gaude denbora guz-
tian, baina proiektua ez dago
bukatuta. Finantzaketa arazo-
ak ditugu, oraingoz ez dugu la-
guntzarik jaso eta dena crowd-
funding bitartez, sare bat
osatuz... ari gara egiten. Hiru
urtetan 800 lagun baino
gehiago pasatu dira hemendik,
laguntzera. 35 herrialde
desberdinetako jendea etorri
zaigu; AEBak, Argentina, Sui-
tza... Proiektuan eta gudan si-
nisten duen jendea etortzen
da. Denetarik izan dugu; Belgi-
kako eskautak edo AEBetako

elizako borondatezkoak. Asko-
tariko lanak egin ditugu de-
non artean. Errazagoa litzate-
ke lan horiek denak egiteko
norbait kontratatzea, baina
horrek ez dauka istoriorik, hor
ez dago zer kontatua. Gure as-
moa da hemen aterpetxe bat
zabaltzea, 40 bat lagunentzat.
Ikastaroak eta tailerrak eskaini
nahi ditugu bertatik, landa
eremuarekin lotuta. Jendea li-
bre eta pozik sentituko den to-
pagune bat eraiki nahi dugu
hemen, Bedaroan».

ARDI MOZTAILEA

Joseba Attard poliedrikoa da,
askotariko ertzak eta aurpe-
giak dauzka. Ardi moztaillea
ere bada. «Gure aita berandu
hasi zen ardiak eskilatzen, 37
bat urte zituela. Umetan be-
ragaz joaten nintzen. Artzai-
nen egutegian oso une ga-
rrantzitsua zen ardiak
mozteko sasoia eta nire egite-
koa izaten zen artilea biltzea.
Ingalaterran balio handia
dauka artileak, hemen ez dau-
ka baliorik, artzainek bota
egiten dute, lurperatu edo
erre. Ingalaterra herrialde ho-
tzagoa da eta etxe guztietan
daude alfonbrak eta moketak,
baita komunean ere. Artilea
erabiltzen da horretarako,

baita ere arropetarako, isolamendurako... hainbat aukera ematen ditu. Egia da Ingalaterrako ardi arraza desberdina dela eta artile bigunagoa daukala. Baina Euskal Herriko arrazek artile latzagoa daukate eta ez dauka hainbeste baliarik. Horrek ez du esan nahi txarra denik, alderantziz, ezaugarri oso interesgarriak ditu, baina bestelako irteera batzuk topatu behar zaizkio».

Gurasoak duela hamar urte jubilatuta eta Elorriora etorri ziren bizitzera, amaren jaiotetxera. «Aitak bere eskilatzeo tresneria ekarri zuen Ingalaterratik Euskal Herrira eta han eta hemen hasi zen ardiak mozten. Moztailerearena oso lanbide exigentea da, gogorra fisikoki, eta aitak ikusten zuen uzteko garaia gerturatzeko ari zitzaioa. Bazkari batean bota zuen, 'ze pena, ni erretiratzen naizenean zeinek hartuko du erreleboa'. Eta nik esan nion nik hartuko nuela bere lekukoa, ikasi eta hasiko nintzela ardiak mozten».



Ardiei ilea moztea lan gogorra da, sasoi onean egotea eskatzen du. «Esaten dute egun batean 8-9 orduz eskilatzea maratoi bat egitearen parekoa dela. Trebetasuna behar da, sasoiaren egon behar duzu. Teknika lantzeko ardiak eskilatzea beste modurik ez dago eta eskilatzaile ona izateko milaka eta milaka ardi moztu behar dituzu».

Aurten beteko du zazpigarren kanpaina. «Baserriz baserri joaten naiz ardiak moztera, batez ere artalde txikiak. Gero eta jende gehiago dago artalde txikiak dituen eta gero eta gutxiago artalde handiekin. Artalde handiak daudenean, beste eskilatzaileek deitzen didate eta taldean joaten gara. Pozik joaten naiz,

besteekin beti ikasten delako zerbait. Polita da, baina ez da oso errentagarria».

Maiatza eta ekaina izaten da ardiei ilea mozteko sasoi indartsuena. Ekoizpenerako artaldeak urtean bitan eskilatzen dira, udaberrian eta neguan. «Ardiak bai edo bai eskilatu behar dira, haien ongizaterako egiten da. Pisua, euliak, beroa, gaixotasunak... horiek denak ekiditen dira».

Euskal Herritik kanpo ere ibili izan da, Ingalaterran, Alemanian, Estatu frantsesean. «Gustatuko litzaidake Galese- ra joatea eskilatzerara. Haurtzaroko parte handi bat ipar Galeseko mugan eman nuen eta izugarri gustatuko litzaidake hara bueltatu eta bertako ardiak eskilatzea. Gainera galestarrak dira munduko eskilatzaile onenetakoak, European erreferenteak dira».



Joseba Attardek aitari erreleboa hartu eta ardiak mozten zazpigarren kanpaina egingo du aurten. Txelu ANGOITIA

OSO EGUN BEREZIAK

Diseinatzetik ardiak moztera eta tartean beste hamaika lan. Joseba Attarden eskuek askotariko lanak egiten dituzte egunean zehar. «Gaur egungo nire egunak oso politak dira. Pozik nago hartutako erabakiarekin. Goizean egon naiteke markari buruzko aholkularitza ematen enpresa indartsu bati, Fagor kasu. Sorlandentzat aholkulari lanak egiten ditut. Arratsaldean baserri batera joan naiteke ardiak eskilatzerara. Tartean nire baserriko lanak, nire artaldea zaindu... Lehen hamabi ordu egoten nintzen ordenagailu aurrean eta hori ez da bizitza».

Baserrira erretiratu den arren, diseinatzaile lanarekin segitzen du, bai Sorlandentzat eta baita bere kabuz ere [www.josebaattard.com]. «Jarraitzen dut diseinuarekin eta oraintxe baditut hainbat proiektu esku artean. Gaur egun diseinatzaile grafikoarena oso boladan dago, oso lanbide moderno da eta jende asko ari da horretan. Ni ez naiz kontsideratzen diseinatzaile grafiko, hori eskaini ahal dudana mugatzea da, sortzaile sentitzen naiz eta saiatzen naiz oreka topatzen bisualaren eta berbalaren artean. Askotan galdetzen diet bezeroei: itsu batek nola ikusten du zure marka? Marka bat elementu bisuala baino askoz gehiago da, zure izaera, ezaugarriak, nortasuna, izen ona... horiek denak babestu egin behar dira marka eraikitzerakoan. Niri asko gustatzen zait bereziki izengintza. Niretzat marka sortzeko puntu garrantzitsua da, izena oso gakoa da diseinu mailan. Pentsa, haur bat jaiotzen denean egiten dugun lehen gauza izena jartzea da».